En el ámbito del postgrado se incorporan los masters oficiales para distinguirlos de los masters existentes hasta la fecha (títulos propios universitarios). En el nuevo contexto educativo, los primeros no vienen a sustituir a los programas existentes, sino que en el futuro se tratarán de dos planteamientos complementarios.

Los masters oficiales proponen una continuación de los estudios universitarios de grado, y en ellos se ofrece una especialización académica o profesional.

Por otra parte, las necesidades formativas de personas en activo dirigidas al desarrollo profesional serán cubiertas por los masters.

En el nuevo contexto, desde la Facultad de Ciencias Empresariales de MU hemos realizado un esfuerzo importante para adecuar nuestro catálogo a la nueva situación. Así, desde el pasado curso, contamos con dos programas que cuentan con el reconocimiento de postgrado oficial:

- MBA – Master Oficial en Dirección de Empresas
- Master Oficial en Gestión de Empresas Cooperativas

En el ámbito de los postgrados propios, presentamos productos dirigidos a la formación de profesionales en activo en diferentes ámbitos de especialización en gestión empresarial.

Son diversas las áreas de conocimiento de la gestión empresarial en las que estamos impartiendo programas de postgrado, y merece una mención especial el Master en Dirección de Proyectos Empresariales, programa promovido por MCC e impartido en colaboración con Saiolan, en el que se plantea como objetivo la formación de profesionales que puedan liderar proyectos empresariales en la corporación.

En cuánto a la formación dirigida al primer nivel directivo de nuestras organizaciones, destacamos el MBA Executive, impartido en colaboración entre MONE y Otalora, y que tienen por objetivo aportar a los directivos una visión integral desarrollando la capacidad de liderazgo en un entorno competitivo y complejo.

Además, merece la pena destacar el programa que estamos desarrollando este curso, en colaboración con la Universidad de Pau y Estia, en la impartición de un master dirigido a gestores de la entidad financiera Crédit-Agricole.

EZF
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA



ARGAZKIA: JOSETXO ARANZABAL

**GRADUONDOKO IKASTAROAK**
Hiru hilabete hauetan ikasleek hausnarketa egin dute giro akademiko serioan, eta parte hartu dute eztabaida aberatsetan.

# KULTURGINTZAKO GRADUONDOKO IKASTAROAN HIRUHILEKO EMANKORRA




"EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA" GRADUONDOKO IKASTAROAK BETE DITU LEHEN HIRU HILABETEAK, ETA ONDO BETE ERE. ASTEARTERO, 60 IKASLE ARI DIRA PARTE HARTZEN IKASTARO HORRETAN.

Ikastaroaren helburua da corpus batean biltzea euskal kulturgintzari buruzko jakintza, barreiatua dagoeta, eta belaunaldi gazteei transmititzea. Horrekin batera, ikusita zelako desafioak dituen euskal kulturgintzak, asmoa da formazio multifokala eta praktikoa egitea. Hori guztia adituak (modu akademikoan) eta arituak (oso era pertsonalean) ematen ari dira, kalitate handiko saio esperimentaletan.

Hiru hilabete hauetan ikasleek hausnarketa egin dute giro akademiko serioan, eta parte hartu dute eztabaida aberatsetan. Gainera, proiektu proposamenak egin dituzte, probetxu handikoak hezkuntzan, komunikazioan eta egituragintzan. Sormen lanetan ere, benetako perlak jaso dira ikasleengandik.

Aditu hauek igaro dira lehen hiruhilekoan: Xabier Aierdi, Josu Amezaga, Amaia Antero, Iñaki Arruti, Joseba Azkarraga eta Xamar. Arituak, berriz, Andoni Egaña, Teo Etxaburu, Jose Angel Irigarai, Mariasun Landa, Benito Lertxundi, Anjel Lertxundi, Ander Manterola, Jose Manuel Odriozola, Jon Sarasua eta Josu Zabala.

## AURTENGO LITERATURA ASTEA, POESIARI BURUZ

Aurten HUHEZIko Literatura Asteak hamar urte beteko ditu. Hori dela-eta, aurtengo aldia poesiaren inguruan antolatuko da.

Arantza Ozaeta asteko antolatzaileak adierazi duenez: "Aurten 30 urtetik beherako poetak gonbidatuko ditugu, poesia genero minoritarioa izanda ere, oso fruitu aberatsak ematen dituelako".

Apirilaren 21etik 25era bitartean, beraz, poeta gazteak etorriko dira Eskoriatzara, Mondragon Unibertsitako fakultatera. Literatura Astearen formatua betikoa izango da: alde batetik, hitzaldiak izango dira; bestetik, ostera, ikuskizunen bat, literaturarekin lotuta, eta musikarekin, seguruenik.

Hamar urtean HUHEZIko Literatura Astea finkatu egin da. Aldi horretan idazle eta sortzaile famatuak etorri dira Eskoriatzara.

## ETORKIZUNEKO KOMUNIKATZAILEAK AZTERGAI

Martxoaren 5ean Komunikaldiak egingo dira. Gaia izango da "Etorkizuneko komunikatzaileak" eta hizlari hauek izango dira.

Martxelo Otamendi Berria egunkariko zuzendaria; Aritz Agirre Euskadi Irratiko informatiboetako zuzendaria; Joseba Iriondo kazetaria eta freelance; Luistxo Fernandez Codesyntax enpresako proiektu arduraduna eta Izaskun Ellakuriaga Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan komunikazio arduraduna.

Mahai inguru bat ere egingo da: Itziar Mena Eiken klusterreko zuzendaria; Arri Granados K-2000ko arduraduna; Itsaso Atutxa 3-koma ekoiztetxeko zuzendariordea eta Asier Altuna zine zuzendariarekin.

## IDOIA PEÑACOBA ETXEBARRIA

# "PREST LELOAREKIN EUROPARA ONDO EGOKITU GARELA ESAN NAHI DUGU"

MU-KO IDAZKARI NAGUSIA DA IDOIA PEÑACOBA ETXEBARRIA. ARRASATEN JAIO ZEN ORAIN 39 URTE. DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN EGIN ZITUEN EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN IKASKETAK, ETA AMERIKETAKO ESTATU BATUETAN AMAITU ZUEN LIZENTZIA. 2000. URTEAN IRITSI ZEN MURA, HARREZKERO DA BERTAKO IDAZKARI NAGUSIA.

Komunikazioa da idazkari nagusiaren zereginetako bat. MUren kanpo komunikazioa aztertzea eta ideia zein irudi bateratua hedatzea. Ondo aztertutako lana egiten du MUk komunikazio arloan, komunikazio kanpaina ausartak planteatuz eta unibertsitatearen indar guneak azpimarratuz. Hain justu ere, otsailean aurkeztu du MUk 2008ko komunikazio kanpaina. Europara ezin hobeto moldatu dela gogoraraztera dator. Horregatik aukeratu dute PREST leloa Mondragon Unibertsitateko komunikazio aholkulariek eta unibertsitateko zuzendariek.

**MUk lelo ausarta aukeratu du komunikazio kanpaina berrirako. Zergatik PREST?**

Beti azpimarratzen ditugu unibertsitatearen elementu bereizgarriak. Zergatik gara ezberdinak? Zein da gure eskaintza berezia? Galdera horiei erantzuten ahalegintzen gara, eta horren araberako kanpainak planteatzen ditugu. Aurten, gainera, oso bestelakoa da hedatu nahi dugun mezua. Europara inor baino hobeto egokitu garela esan nahi dugu PREST kanpainarekin. Hori da komunikatu nahi duguna. Euskal Herrian beste inork ez du 2008an sistema berrira egokitutako eskaintzarik egingo. PREST leloa erakargarria eta positiboa da, indarra dauka. Gainera, lotura estua du komunikatu nahi dugunarekin.

**PREST Europarako, esan nahi duzue, ezta?**

AZK komunikazio enpresak proposatu zigun leloa eta hasieratik gustatu zitzaigun. Prest hitzak gaztelaniaz hiru esanahi ditu. Prest gaudela esaten dugunean gaitasun ikuspegitik prestatuta gaudela esan nahi dugu. Gaztelaniazko, *preparado*, alegia. Denbora aldetik ere prest gaudela, epeak inork baino hobeto bete ditugula eta garaiz iritsi garela. Gaztelaniaz, *listo*. Eta jarrera aldetik ere prest gaudela. Erronka berri honi aurre egiteko jarrera dugula eta sistema berriarekin lan egin nahi dugula. Gaztelaniaz, *dispuesto*. Hori guztia da PREST. Aukera bakarra gara Ingeniaritza eta Enpresa Zientzia ikasketak sistema berrian egin nahi duten gazteentzat, eta hori nabarmendu nahi dugu.

> *"Bologna Prozesuaren kontra daudenei, esango nieke konfiantza edukitzeko, modelo berria guztiontzat delako ona"*

**Zeintzuk dira helarazi nahi dituzuen mezuak?**

Berritzaileak garela eta arduratsuak gizartearekin. Izan ere, konpromisoa hartu dugu geure gizartea osatzen duten instituzio eta enpresekin. Ikasleei, berriz, esan nahi diegu ikasketa prozesuaren protagonista nagusiak izango direla.

**Zeintzuk izango dira erabiliko dituzuen elementuak mezua eta leloa helarazteko?**

Ikasleak eta haien gurasoak dira gure kanpainaren jomuga, eta ondo iritsi behar zaie komunikatu nahi dieguna. Horretarako erabiliko ditugu betiko elementu eta bitartekoak: Internet, aldizkari zein egunkariak eta irratiak. Eta komunikazio zuzeneko bideak, izan ere, ate irekien jardunaldiak antolatuko ditugu eta Batxilergoko ikastetxeetara gerturatuko gara geure unibertsitatearen ezaugarriak ezagutzera ematera.

**Uste duzu ikasle zein gurasoek modelo berriaren gainean informazioa badutela?**

Asko idatzi da, baina gizarteratze kanpaina ez da ona izan. Uste dugu ikasle eta gurasoek ez dakitela zer suposatzen duen aldaketak, eta horrexegatik, zalantza ugari dituztela. Prozesuaren kontra daudenei esango nieke konfiantza edukitzeko, modelo berria guztiontzat delako ona. Ez dugu uste hizkuntz eskubideak urratzen dituenik eta gure unibertsi-



ARGAZKIA: JOSETXO ARANZABAL

tateak euskalduna izaten jarraituko du. Orain arteko lan karga handiagorik ere ez dute izango ikasleek; bai, ordea, laguntza gehiago eta orduen banaketa hobea.

**Europan orain urte batzuk ezarri zuten modelo berria. Estatu espainiarrean zein da egokitzapenaren egoera?**

Bologna prozesuaren helburua da hezkuntzaren kalitatea hobetzea eta Europan ondo ezarri da. Estatu espainiarrean iaz onartu zen Errege Dekretua, urriaren 29an. Horren ondorioz, unibertsitate asko oraindik ez daude prestatuta aldaketarako, ez dituzte ikasketak egokitu. Gu, berriz, Errege Dekretua onartu aurretik prest geunden. Bai, behintzat, neurri batean. Orain 8 urte ekin genuen Mendeberri modeloaren garapena, eta funtsean antzekotasun ugari dituzte Mendeberrik proposatzen duen hezkuntza sistemak eta Europak proposatzen duenak. Filosofian eta hezkuntza metodologian, beraz, aurrelan handia egina genuen. Aldaketa, beraz, oinarri sendoekin egin dugu, eta Euskal Herriko bakarrak gara. Pozik egoteko arrazoiak ditugu MUn.

**IDOIA PEÑACOBA**
MUko idazkari nagusiak komunikazio kanpaina berriaren gaineko argibideak eman zizkigun.

## PEDRO BITERI ETA ARANA IKASTETXE NAGUSIA

# ELKARBIZITZA ETA AUTOGESTIOA: IKASTETXE NAGUSIAN DAUDEN GAZTEEN EZAUGARRI ETA BALOREAK

1993AN ESKOLA POLITEKNIKOKO IKASLEEN BETIKO ERRESIDENTZIA, UPV-EHU UNIBERTSITATEARI LOTURIKO PEDRO BITERI ETA ARANA IKASTETXE NAGUSIA BIHURTU ZEN. GAZTELERAZ “COLEGIO MAYOR PEDRO VITERI Y ARANA” IZENEZ EZAGUTZEN DUGU. GAUR EGUN, BERRIZ, MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN GOI ESKOLA POLITEKNIKOAREN ERAKUNDEA DA.

Biteri Ikastetxe Nagusiaren misioak dioen moduan, bere zeregina da unibertsitateak eskaini beharreko erabateko heziketa bateratu edo integralaren osagarri izatea. Hau da, heziketa “ez-formala” deritzonaren bitartez, unibertsitateko heziketa akademikoaren osagarri izatea, hain zuen ere.

Heziketa “ez-formal” horren garapenerako eskaintzen dituen zerbitzu hauetan oinarritzen da Ikastetxe Nagusia. Une honetan 277 ikaslerentzako ostatu zerbitzua, jangela eta ikasteko gunea. Errealitate horretan elkarbizitza ezinbestekoa da, eta horixe da erakunde honen misioak zentzua izan dezan garatu beharreko tresnetariko bat.

Bestea, berriz, autogestioa izango litzateke. Etxearen antolakuntza funtzionala, hauspo baten moduan bere barne bizitza suspertzen duten kirol ekintzak, ekintza artistikoak eta baita kulturalak ere, ikasleek antolatu eta koordinatzen dituztenak. Musika taldeak, dantza taldeak, argazkilaritza edo edonork duen beste edozein ideia ere errealitate bihur daiteke. Aurten, Aste Santuan 11 laguneko talde bat Saharako kanpamentuetara joango da, Tinduf hiriaren alboan, bertan solidaritza bultzatu nahi dute-eta. Argazkilaritza digitalarekin zerikusia duen proiektua jorratu nahi dute bertan. Nahi izanez gero eta aukerak aprobetxatuz gero, Biteri Ikastetxe Nagusia abentura bat izan daiteke unibertsitatean dagoen edozein gazterentzat.

**BITERI IKASTETXE NAGUSIA** “nagusi” egin da, bai, “la Resi se ha hecho Mayor”.

Elkarbizitza eta autogestioa ardatz izanik Bolognako prozesuari begira jarri zen Ikastetxe Nagusia duela bost urte. Unibertsitateko Mendeberri programaren ildotik baloreak eta zeharkako konpetentziak garatzen dituen hiru urteko “hezkuntza plana” diseinatzen hasi zen. Aurten dugu plan horren egitarau osoa burutu duten lehenengo 9 lagunen garapena ziurtagiri baten bitartez islatzeko aukera.





**NAZIOARTEKO IKASLEEN TOPAKETA**

# MUKO NAZIARTEKO IKASLEEN LEHENENGO TOPAKETA EGIN DA

MUNIVERSITAS ALDIZKARIAREN 2. ZENBAKIAN, 2006KO NEGUAN HAIN ZUZEN ERE, AIPATZEN ZEN NAZIOARTERATZEA MU-RENTZAT, ELEMENTU BAT GEHIAGO IZATETIK ERRONKA IZATERA PASATU ZELA. URTEETAN, MU-KO IKASLEEN JOAN-ETORRIAK UGARIAK IZAN DIRA, BAINA AZKEN IKASTURTEETAN INDARTU EGIN DA ELKARTRUKEA.

Gure ikasleak atzerrira joaten diren aldi berean, atzerriko hainbat ikasle hartzen ditugu guk Mondragon Unibertsitatean, eta aurtengo ikasturtean, unibertsitatea osatzen duten fakultate desberdinetan ikasten ari diren ikasle atzerritarrak, ikasleen lehenengo topaketa egin dute beraien artean ezagutzeko helburuarekin.

Oraingoan, Oñatin izan zen topaketa, Enpresa Zientzien Fakultatean. Eta jatorri ezberdineko 21 ikasle gerturatu ziren: Brasil, Mexiko, Kroazia, Polonia, Italia eta Frantziako ikasleak guztiak ere.

Ekitaldiari hasiera emateko, elkar ezagutzeko aurkezpen bat izan zuten. Silbia Sarasola, Enpresa Zientzien Fakultateko atzerriko harremanetarako arduradunak, Jon Altuna, Goi Eskola Politeknikoko zuzendari akademikoak eta Gentzane Aldekoa, Goi Eskola Politeknikoko atzerriko harremanetarako koordinatzaileak parte hartu zuten aurkezpenean. Ondoren, guztiak bazkaltzera joan ziren eta Arantzazura bisita egin eta jaigiroan bukatu zuten eguna.

## PRACTICES, PROJECTS AND PROGRAMMES

Different practices, projects and programmes of study have made possible our students to internationalize. Although they used to go to companies and universities from countries close to us, nowadays our relationships are extended all over the world, from China to America.

**TOPAKETAK GUREAN**

Gero eta gehiago dira Mondragon Unibertsitatera atzerritik etortzen diren ikasleak. Hori dela-eta, lehenengo topaketa egin dute 21 ikasle atzerritarrek Oñatin.



PTG

# PERTSONA ETA TALDEEN GARAPENA ERAKUNDEETAN

**PTG GESTIO UNITATEAREN ZUZENDARIA** da Marian Iriondo. Argazkian bigarrena eskumatik. Mondragon Unibertsitateko Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean dihardu gaur egun Iriondok.

ONDORENGO LERROETAN, ALDE BATETIK, PTG SORRERAREN INGURUKO HAINBAT DATU, ETA BESTETIK, UNITATEAK AURRERA ERAMAN OHI DITUEN EKINTZAK AIPATZEN DIRA. EKINTZA HORIEK LAU HAUETAN LABURBIL DAITEZKE: FORMAZIOA, AHOLKULARITZA, COACHING ETA IKERKETA.

2003ko uztailean, PTG Gestio Unitatea onartu zen HUHEZIko Kontseilu Errektorean. 2003ko azaroan Errektoretzan aurkeztu zen, eta 2004ko uztailean Unibertsitateko berregituraketa planean, PTG gestio unitatea behin behinerako Errektoretzaren mende gelditu zen. Urte horietarako Gestio Planarekin eta lau urterako Plan Estrategikoaren aurkezpenarekin ematen zaio hasiera ibilbideari.

Urte horietarako xede nagusia izan da MCCko enpresetako zuzendariei formazioa ematea, Otalorarekin elkarlanean sorturiko programarem bitartez: Ederlan, Maier, Eroski, Egurko, Danobat... Newfield kontsultorarekin ere hainbat enpresatan egin izan da lan: Fagor Electrodomésticos, Matrici…

MUn garatu diren ekintzen artean, 2006an sortutako "norbere garapena eta taldeen lidergoa" adituen ikasturtea da azpimarragarria. Aurten, 3. edizioa hasi berria dugu 29 ikaslerekin eta talde kudeaketan ari diren zuzendariei bideratuta dago.

MU barnean espazio ezberdinetan egin du lan PTGk, baina batez ere, 3. ziklora bideratu du lana: MBA, Enpresa kooperatiboen Gestio Masterra, Enpresa Proiektuen Zuzendaritza Masterra eta MUko irakasleen formazioan ere aritu dira PTGko partaideak.

Kanpo enpresa eta erakundeekin lana ere egin da programa ezberdinetan: Gasteizeko Udalarekin, Azaro Fundazioarekin...

PTGn egiten denaren berri ematea ere izan da beste helburuetariko bat. Horrela, 2003ko martxoan, 2004ko irailean eta 2007ko irailean, hainbat kongresutan eman da izandako esperientzien berri.

**TESI IRAKURKETAK HIRU FAKULTATEETAN**

HUHEZIn, Goi Eskola Politeknikoan eta Enpresa Zientzien Fakultatean izan dira tesi irakurketak azken hilabeteotan. HUHEZIn giza harremanak eta hezkuntza izan dira aztertutako gaiak.

## HUHEZI
## HAURRAREN GARAPENA ETA ESKOLA



**IÑAKI LARREA:** Eskolak haurrengan duen eragina aztertu du.

Tesi honek aztertu nahi izan du eskolaren zein aldagaik eta zein neurritan eragiten duen haurrarengan. Ikerketa egin da Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 0-3ko 62 gelatan, 895 haurrekin. Emaitzek aditzera eman dute eskolaren kalitateak eragin zuzena daukala haurraren garapenean. Zenbat eta egokiagoak izan haur eskolak, orduan eta emaitza hobeak izan dituzte umeek euren garapena ebaluatzeko tresnetan. Ikusi da gelako giroak, irakaslearen sentikortasunak eta bere hitz egiteko eta azalpenak emateko erak erlazio zuzena dutela haurraren inplikazio eta ongizate mailekin.

## HUHEZI
## ADOLESCENTES Y FAMILIA



**EDURNE GALÍNDEZ:** la satisfacción vital de los adolescentes y su funcionamiento familiar.

Se analizan los conceptos de calidad de vida, bienestar subjetivo y satisfacción vital, la relación entre familia y los adolescentes. La parte empírica engloba dos estudios. El primero hace referencia a la traducción, adaptación y validación de las escalas Students' Life Satisfaction Scale y Multidimensional Students' Life Satisfaction Scale. El segundo trata la relación entre la satisfacción vital de los adolescentes y las siguientes variables de su funcionamiento: cohesión, adaptabilidad, recursos, comunicación, satisfacción y estrés familiar.

## GEP
## CABLES METÁLICOS



**MIKEL URTXEGI** Estudio sobre los cables metálicos y su comportamiento frente al fretting.

Los cables metálicos combinan dos propiedades muy interesantes: alta rigidez a tracción y baja rigidez a flexión. Pero el ensamblaje de hilos para formar cables flexibles conlleva un deslizamiento entre hilos en contacto y la creación de huellas de desgaste, que pueden reducir la vida a fatiga de los cables. Para entender este fenómeno, se debe estudiar el freeting -la degradación que ocurre entre los hilos y cordones en contacto-. En este trabajo se ha analizado el comportamiento del cable frente al fretting.

## GEP
## INTERNETEKO TRAFIKOA AZTERGAI



**URKO ZURUTUZA** Analisiak aukera ematen du hobeto ulertzeko Interneten dabilen ezohiko trafikoa.

Tesi honetan Interneten zehar higitzen den trafikoa ezagutzeko erabili daitekeen esparru bat proposatzen da. Ondorioz, data mining tekniken bidez egindako analisiak Interneten darabilen ezohiko trafikoaren ulermena handiagotzeko aukera ematen du, trafiko bai maleziatsu (xixare informatikoak), bai gaitzuste gabekoa. Sistemak berak sortutako sinadurak operazio Intrusio Detekzio Sistemetan erabil daitezke eraso informatiko berriak detektatzeko, horien aurrean neurriak hartzera lagunduz.

## GEP
## EQUIPOS PRODUCTIVOS



**AITOR GOTI** El trabajo realizado ha sido aplicado para la optimización de dos casos reales.

La optimización de las estrategias de mantenimiento preventivo periódico aplicadas a equipos productivos con criterios económicos es una actividad de creciente interés, donde la eficacia juega un papel clave en el adecuado funcionamiento de la planta. Se han desarrollado dos modelos, en los que se modelan el beneficio relativo a la producción de productos no defectuosos junto con los costes referentes a la indisponibilidad, el mantenimiento, la calidad así como los costes generados por la pérdida de velocidad de la producción.

## GEP
## KONTROL ESTRATEGIAK AZTERGAI



**IZASKUN SARASOLA** Kontrol linealak eta kontrol ez linealak ikertu dira.

Tesi honetan estatorean elikadura bikoitza duen indukziozko makina (BDFM) batentzat kontrol estrategia desberdinak aztertu dira. Kontrol linealak eta kontrol ez linealak ikertu dira. Kontrol ez lienalen barnean, momentuaren kontrol zuzena (DTC) garatu da. Alde batetik DTC asinkronoa kommutazio maiztazun asinkronoarekin eta beste batetik, DTC iragarlea kommutazio maiztazun konstantearekin aztertu dira. Azkenik, aztertutako kontrol estrategia guztiak entsegu plataforma esperimentalean egiaztatu dira.

KIROLA

# ERASMUS: KIROL PRAKTIKAN EREDU

AZKEN URTEOTAN ATZERRIKO IKASLEAK ETORRI ZAIZKIGU MONDRAGON UNIBERTSITATERA ERASMUS JANTZIAREKIN. BESTELAKO ILE KOLOREA EKARRI DIGUTE, BAI, BAINA BAITA HORI BAINO GEHIAGO ERE: EREDUGARRI IZAN DIRA KIROLA EGITERAKOAN.



Oso ikuspegi onez, eta beti ere europar biztanleen identitatea garatze aldera, 1987an Europako Batasunak ekintza plan bat abiatu zuen unibertsitateko ikasleen mugikortasuna garatzeko; Erasmus izenarekin ezagutzen dugu. Erasmo Rotterdamgoa filosofo eta humanista ospetsua gogoan izan zuten proiektua izendatzeko orduan.

Hogei urte pasatu dira, eta jada Erasmus belaunaldi batez hitz egiten da; ikasle horiek adiskidetasun lokarriak sortzen dituzte, mugak gainditzen dituztenak, eta esaten da Europako biztanle izatearen kontzientzia bizia dutela.

MUko kirol zerbitzua orain lau urte hasi zen ikasle hauekin lanean. Berehala konturatu ginen geure bezero potentzial leialak izan behar zirela; kirola egiteko ohitura argia zutela erakusten zuten: parte hartu izan dute bai txapelketetan, bai sasoia hobetzeko saioetan eta baita kirol taldeetan.

Valentin frantziarra waterpolo taldean sartu zen, Tukasz eta Pawel poloniarrek boulder eskalada egiten dute, Marco Casino italiarrak Arrasateko judo elkartean dihardu, Filiz turkiarra Arrasateko atletismo taldera ere inguratu zen, barne txapelketan ere denek batera parte hartzen dute Erasmus izena duen areto futbol taldean, Mathieu frantziarrak boxeoa eta Simón, Piotr, Marcin eta Matús ek giharketa egiten dute kirol zentro batean…

Ea gure ikasleek eskuratzen duten Erasmus ikasle hauengatik ekintza fisikoa eta kirola praktikatzeko naturala duten ohitura hori; etor daitezela gugana, gure ingelesari astindu bat emateaz gain, kirolaren praktikan eredu izaten jarraitzeko. Ongi etorri gurera!

## DEPORTE DE LA MANO DE ERASMUS

Los estudiantes europeos que mediante el programa Erasmus están entre nosotros, disfrutan con la práctica deportiva, y la mayoría se ha integrado en equipos locales o realiza deporte por libre. Es una costumbre muy extendida en Europa, y el reto de los responsables deportivos de MU es hacer extensiva esa práctica y costumbre. Para ello, todos aquellos estudiantes que estén interesados en hacer deporte pueden acercarse a las oficinas de los servicios deportivos de MU. Además, todos ellos tendrán la oportunidad de practicar ese deporte con los estudiantes de Erasmus, y, por lo tanto, podrán hablar inglés.

**DEPORTE EUROPEO**
Los alumnos de Erasmus son un ejemplo en la práctica deportiva. Muchos de ellos están integrados en equipos y disciplinas deportivas de nuestra comarca.

ETORRIAK

# NAZIOARTEKO UNIBERTSITATEAK GUREAN



LIFEPLACE LEARNING Azaroaren 19an hasi eta bi egunez HUHEZIn egindako mintegiaren parte hartzaileak argazkian.

**COLOMBIA** Visita a Mondragón de una delegación de 34 personas de Cooperativas de Colombia, al objeto de conocer la experiencia cooperativa de Mondragón. La visita se realizó el 4 de octubre.

**ESTADO DE JALISCO, MÉXICO** Visita a MU de 7 personas de la Delegación de Educación del Gobierno del Estado de Jalisco, el 9 de octubre, con el objeto de conocer la universidad y firmar un convenio marco de colaboración.

**POLONIA, UNIVERSITY OF BYDGOSZCZ** Visita a la Escuela Politécnica Superior del vicerrector de la University of Bydgoszcz de Polonia, Antoni Bukalude, al frente de una delegación de 6 personas, al objeto de conocer nuestra universidad. La visita se realizó el 16 de octubre.

**MÉXICO** Visita a Mondragón de la delegación mexicana formada por cuatro personas procedentes de CONACYT y Federación Mexicana de Entidades de Ahorro y Crédito FMEAC. La visita se realizó el 22 de enero.

**KOLONBIA** Azaroaren 6an GEPen izan genituen bisitan Kolonbiako Bucaramangako Unibertsitate Autonomoko ordezkariak. Alberto de Jesús Montoya unibertsitateko errektorearekin beste, sei ordezkari egon ziren. Bisitaren helburua izan da gure unibertsitatearen jarduera ezagutzea eta berrikuntza pedagogikoaren inguruan solastea. GEPeko eskaintza ezagutu zuten, ingeniaritzari zein goi mailako heziketa zikloei dagokienez, Goi Eskola Politeknikoko laborategi zein eraikuntzak ere ezagutu zituzten.

**EMBAJADA FRANCESA** Visita a MU de la embajada Francesa en España, con el objeto de aumentar la movilidad a nivel de estudiantes como de profesores y promocionar secciones francófonas en EPS. La visita se realizó el 11 de noviembre.

**BRASIL** Visita a Mondragón de una delegación de 10 personas de Cofebrás, Cooperativas de Crédito de Brasil, al objeto de conocer la experiencia cooperativa de Mondragón. La visita se realizó el 14 de noviembre.

**NAZIOARTEKO MINTEGIA** Azaroaren 19an hasi eta bi egunez, nazioarteko mintegi bat egin zen HUHEZIn, "Lifeplace Learning" izenekoa. Lifelearn proiektua nazioartekoa da, eta helburua du aprobetxatzea komunitatea eta etxe giroa ikasteko gune moduan. Bertan Europako sei unibertsitatek parte hartzen dute, tartean MUk.

JOANAK

**MOSCÚ, VARSOVIA Y WROCLAW** Del 22 al 26 de octubre, la dirección académica de EPS visitó las Universidades: Bauman Moscow state University (Moscú-Rusia), Warsaw University of Technology (Varsovia-Polonia) y Wroclaw University of Technology (Wroclaw -Polonia) con el objetivo de firmar diferentes convenios de colaboración.

**REPÚBLICA CHECA Y ESLOVAQUIA** Del 22 al 26 de octubre, la dirección académica de EPS visitó las Universidades: Brno University of Technology (Brno-Rep.Checa), Slovack University of Technology (Bratislava-Eslovaquia) con el objetivo de firmar diferentes convenios de colaboración.

En este mismo viaje se visitaron las siguientes empresas Cikautxo CZ (Libereck Kraj-Rep.Checa) y Batz Czech (Frydlant nad Ostravicí-Rep.Checa).

**TOULOUSE** El 25 de enero, la Dirección Académica, el Director de Electrónica e Informática y el Departamento de Relaciones Internacionales de EPS realizaron una visita a la universidad INSA Toulouse, con el objeto de ampliar la oferta de doble diploma que existe para Ingeniería Industrial a la especialidad de Informática.

**ZARAGOZA** Urriaren 30ean Marian Iriondo HUHEZIko irakaslea Zaragozako Unibertsitatean izan zen, eta han saio bat eman zien bertako irakasleei, ikastaro honen barruan: "Gaitasun etikoak unibertsitatean: garapena hezkuntza planifikazioan". Ikastaroa Mª Rosa Buxarrais Bartzelonako Unibertsitateko irakaslearekin batera prestatu zuen Marianek.

AGENDA

## OTSAILA

■ **IIND. INTERNATIONAL ECONOMIC & STRATEGY MIITING – MCAC**
Arantzazu (Oñati), Otsailaren 25 eta 26an

■ **BUENAS PRÁCTICAS EN GESTIÓN DE EMPRESAS COOPERATIVAS**
Gasteiz, 29 de Febrero
*ggonzalez@eteo.mondragon.edu*

■ **CURSO AVANZADO EN GESTIÓN INTEGRAL DE LA EMPRESA CON UN SISTEMA ERP BASADO EN MICROSOFT DYNAMICS AX**
Oñati, 25 de Febrero
*www.mondragon.edu/ezf/eten-gabeko-prestakuntza*

## MARTXOA

■ **TALLER DE INNOVACIÓN**
Arrasate, 5 de Marzo, Polo Garaia.
Taller en el que las personas asistentes se convertirán en protagonistas activas. Pretende identificar los factores clave, las habilidades, las emociones de las personas para impulsar el compromiso con la organización, la colaboración, el aprendizaje, la innovación y el éxito profesional y personal. Participaran José Ignacio Zudaire, Koldo Saratxaga, Luis Mª Ullibarri, Luis Espiga y Txomin García.
*www.mondragon.edu/iraunkor*

■ **KOMUNIKALDIAK HUHEZIN**
"Etorkizuneko komunikatzaileak"
Eskoriatza, Martxoak 5

■ **ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO KARRERA AMIERAKO PROIEKTUEN DEFENTSA**
Oñati, 2008ko martxoa

## APIRILA

■ **MCOOP – MASTER OFICIAL EN GESTIÓN DE EMPRESAS COOPERATIVAS**
Oñati, 3 de Abril
*http://www.mondragon.edu/ezf/master-eta-graduondoak/master-eta-aditua*

■ **CURSO AVANZADO EN GESTIÓN DE MANTENIMIENTO**
Arrasate, de Abril a Noviembre (120 h). Pretende capacitar a los asistentes en el diseño y gestión de un plan global de mantenimiento, aplicación de técnicas y herramientas de gestión, control económico, etc.
*www.mondragon.edu/camante*

■ **ENTREGA DE DIPLOMAS DE 1º Y 2º CICLO DE INGENIERIA**
Arrasate, 4 de Abril
Se celebrará el acto académico de entrega de diplomas a los alumnos egresados de 1º ciclo de ingeniería y el 25 de abril a los titulados de 2º ciclo de ingeniería.

■ **ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN LIZENTZIATURA, ZUZENDARI IDAZKARITZA ETA MASTER ETA POSTGRADUKO TITULU BANAKETA**
Oñati, 2008ko apirila

■ **HUHEZIKO FAKULTATEAN LITERATURA ASTEA**
Eskoriatza, 2008ko apirilaren 21etik 25era

## MAIATZA

■ **II JORNADAS DE INTERCAMBIO DE EXPERIENCIAS MOODLE: MOODLE MOOT EUSKADI 2008**
Arrasate, 16 de Mayo.
Estas jornadas tienen como objetivo ofrecer la oportunidad a los diversos agentes de encontrarse para intercambiar experiencias y debatir acerca de los usos y desarrollos posibles de Moodle.

## EKAINA

■ **X CONGRESO NACIONAL DE MATERIALES**
Donostia, 18, 19 y 20 de Junio. Como novedad importante, esta edición del Congreso estará precedida, el día 17 de Junio, por la I Escuela de Materiales de la SEMAT. Se invitará a uno o dos ponentes de reconocido prestigio que darán su visión sobre un tema específico de actualidad tecnológica y científica.
*http://www.mondragon.edu/CNM08/*

# La Guipuzcoana

ZERBITZU ERREGULARRA ETA DISKREZIONALA
ESKATU AURREKONTUA

SERVICIO REGULAR Y DISCRECCIO-NAL
PIDA PRESUPUESTO

## IBILBIDEA eta ORDUTEGIA

2008/02/18TIK AURRERAKO ALDAKETAK
CAMBIOS A PARTIR DE 18/02/2008

| AZPEITIA Anbulatorioa Igerilekua | AZKOITIA Max.Eroski Goiko-Kale Gasol. | ELGOIBAR Markina-ra bidean gelditzen den | EIBAR Autopista Gasolindegia | | ARRASATE Eroski (*) | | OÑATI Eteo |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 06:35 | 06:43 | 07:00 | 07:10 | → | 07:30 | → | 07:45 |
| 12:05 | 12:15 | 12:30 | 12:40 | → | 13:05 | → | 13:15 |
| 14:50 | 14:42 | 14:25 | 14:15 | ← | 13:50 | ← | 13:30 |
| 20:00 | 19:52 | 19:35 | 19:25 | | 19:00 | ← | 18:45 |

| ETXABARRI Metro Geltokia | ZORNOTZA Rotonda Ondoko Geltokia | DURANGO Magdalena | MATIENA Eskolen ondoan | ABADIÑO Ohiko Geltokia Zelaieta | ATXONDO Errepide General. | ELORRIO Goiko Gelto. Beheko Gelto. | ARRASATE Eroski (*) | | OÑATI Eteo | ESKORIATZA Huhezi |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (1) | 06:35 | 06:50 | 06:55 | 06:58 | 07:00 | 07:05 | 07:30 | → | 07:40 | 07:50 |
| 11:45 (2) | 12:00 | 12:15 | 12:20 | 12:25 | 12:30 | 12:35 | 13:05 | → | 13:15 | 13:25 |
| 15:10 (3) | 14:55 | 14:40 | 14:35 | 14:30 | 14:25 | 14:20 | 13:50 | ← | 13:30 | 13:30 |
| 20:20 (3) | 20:05 | 19:50 | 19:45 | 19:40 | 19:35 | 19:30 | 19:00 | ← | 18:45 | 18:30 |

(*)Oharra: Puntu honetan transbordoa egingo da.(Eteo, Eskola-Huhezi)
(1) Ez da egongo zerbitzurik egongo Etxabarritik. Zerbitzu berezia egongo da astelehenero, 6:20etan, San Mames-eko Termibus-en geltokian.
(2) Zerbitzu hau bakarrik astelehenetan emango da
(3) Zerbitzu hau bakarrik ostiraletan emango da



IBAI-ONDO 20 • 20720 AZKOITIA • GIPUZKOA • Tfno.: 943 851159 • Fax: 943 857072

# ZABADIS S.L.
## EDARI BANAKETAK

SAN MIGUEL • SCHWEPPES • FONT VELLA
HEREDAD DE UGARTE • SOLANA DE RAMIREZ
CARLOS SERRES • IPARRAGIRRE SAGARDOA

Olaberria auzoa 11 - 1 pab • 20230 LEGAZPI (Gipuzkoa) • Tel.: (943) 73 07 22 • Fax: (943) 73 07 42

# EROSKI
# erantzunkizuna da

EROSKIren 2005-2006ko Erantzukizun Sozialeko Memoriak A+-eko balorazioa jaso zuen, Global Reporting Initiative-k ematen duen onena.

2006an, Bidezko Merkataritzako produktuen salmenta EROSKIn 271.943 eurokoa izan zen
(% 65 igo zen aurreko urtearen salmentarekin alderatuta).

Konpromisoak Milurtekoko Helburuekiko: laguntza-deialdia urtero egiten da, eta 100.000 onuradun baino gehiago izaten dira.

EROSKI FUNDAZIOAk 1.756.000 euro eman ditu lankidetzarako 2006an.

3.000 tona produktu eta janari-edari inguru eman dira.

EROSKI FUNDAZIOAk Boluntariotza Korporatiboko programak sustatzen ditu: Solidarioa eta Ingurumenekoa.









EROSKI FUNDAZIOA
zurekin